



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Gasteizko guraso euskal
hiztunen Familia Hizkuntza
Politikak seme alaben
sozializazio eleaniztunerako**

Anne Egaña Asensio

43-49 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.05>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Gasteizko guraso euskal hiztunen Familia Hizkuntza Politikak seme-alaben sozializazio eleaniztunerako

Anne Egaña Asensio

(UPV/EHU)

aegana031@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Haurrak eleaniztun sozializatzerakoan Gasteizko familia euskal hiztunetan gurasoek nolako Familia Hizkuntza Politikak egiten dituzten aztertzeke ikerketa bat proposatu nahi da lan honetan. Horretarako, Familiako Hizkuntza Politikei (FHP), hau da, gurasoen ideologia, estrategia zein praktika linguistikoei arreta berezia eskainiko zaie euskara, gaztelania eta ingelesari erreparaturaz. Horrez gain, hizkuntza sozializazio prozesuetan seme-alaben agentzia aztertu nahi da; horretarako, haurren hizkuntza praktikak ere aztergai izango dira. Datu-bilketarako baliatuko diren ikerketa-tresnak hurrengoak izango dira: eztabaida-talde bat, banakako elkarrizketa erdi-gidatuak eta behaketa zuzen eta parte-hartzaileak. Bukarera, ildo bereko zenbait aurrekari kontuan hartuta aurreikuspen batzuk aurkeztuko dira.

Hitz gakoak: Gasteiz, euskara, hizkuntzen biziberritzea, Familiako Hizkuntza Politikak, Hizkuntza Sozializazioa, agentzia.

Abstract

This paper proposes a study on the Family Language Policies that parents in Basque-speaking families in Vitoria-Gasteiz carry out when socialising multilingual children. To this end, special attention will be paid to Family Language Policies, that is, to the ideologies, strategies and linguistic practices of parents, focusing on Basque, Spanish and English. In addition it is also intended to analyse the agency of sons and daughters in the processes of linguistic socialisation, for which children's linguistic practices will also be studied. Therefore, the research instruments to be used for data collection will be a focus group, semi-guided individual interviews and direct and participatory observations. At the end, some hypotheses will be presented, taking into account some previous work along the same lines.

Keywords: Vitoria-Gasteiz, Basque, Language Revitalisation, Family Language Policy, Language Socialisation, agency.

1. Sarrera eta motibazioa

Euskal Herrian, euskararen transmisioaren esparruan, Hernandezek (2015) esan bezala, gehiago egin da hizkuntza politikak proposatu, Familiako Hizkuntza Politikak (FHP) ikertu baino. Hori dela eta, modu xumean bada ere, lan honek Euskal Herriko hizkuntza sozializazio prozesuak hobeto ezagutzen laguntzea du helburu, Kasaresen (2014), Ikardoren (2017), Garcia-Ruiz et al.-en (prentsan) ikerketen ildoari jarraiki. Izan ere, Inkesta Soziolinguistikoak eta Mapa Soziolinguistikoak hizkuntza transmisioaren esparruan izan den bilakaeraren datu makro-soziolinguistikoak eskaintzen dituzte. Haatik, transmisioaren hainbat dimentsio ikertzeko, metodologia kualitatiboek (eztabaida-taldeak eta banakako elkarrizketa erdi-gidatuak, besteak beste) ikuspegi sakonago bat, hots, datuen atzean egon litezkeen arrazoiak aztertzeke parada eman diezagukete.

2. Arloko egoera

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa funtsezko esparrua da hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuetan. Euskararen kasuan ere halaxe izan da, eta oraindik ere halaxe da. Alabaina, ikerketa soziolinguistikoei erreparaturaz, azken hamarkadetan indartu den auzia dugu familiako hizkuntzen transmisioarena, hau da, familia ikerketa esparru gisa azken hamarkadetan sustatu da. Eta horrenbestez, ikerlan honetan, arreta berezia eskaini nahi diet hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspunturi: Familiako Hizkuntza Politika eta Hizkuntza Sozializazioa. Izan ere, ikerketa egitasmoaren helburu nagusia Gasteizko testuinguruan guraso euskal hiztunez osaturiko familietan

seme-alabak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez sozializatzeko dituzten ideologiak, praktikak eta estrategiak aztertzea izango da.

Hortaz, aurkeztuko den ikerlanaren abiapuntu eta jomuga Gasteizko testuingurua denez, aipaturiko testuinguru soziolinguistikoa kokatzen lagungarriak izango diren hizkuntza gaitasunari, lehen hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruzko datuak bilduko ditut jarraian. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, oro har, 80ko hamarkadatik aurrera EAEn jazo den euskararen gaitasunaren gorakada ezin ukatuzkoa da, euskaraz dakitenen kopurua nabarmen hazi delako, bereziki, umeen eta gazteen artean (Goikoetxea, 2016: 17). Alabaina, oraindik ere, erronkarik handiena erabilerarena dugu. Gasteizko testuinguruan zentratuz, Eustaten (2022) azken datuen arabera, Gasteizen % 29,8 dira euskaldunak eta 2011rekiko euskaldunen proportzioaren hazkundea % 7,4 puntukoa izan da.

Lehen hizkuntzari heltzeko, VI. Mapa Soziolinguistikoa (Hizkuntza Politika Saila, 2020) bilduriko datuak hartuko dira oinarritzat, zeinak bost urtetik gorako biztanleak kontuan hartzen dituen. Hortaz, Gasteizko testuingurua berrartuz, hona hemen etxean jasotako hizkuntzen inguruko datuak: % 3,6k euskara soilik, euskara gaztelaniarekin batera % 3,5k eta gaztelania soilik % 86,9k jaso du etxean. Gainera, etxean euskara edo gaztelania ez, baizik eta beste hizkuntza bat jaso dutenak gero eta gehiago dira hiru hiriburuetan: esaterako, % 5,9 Gasteizen.

Horrez gain, hizkuntzen erabilerari dagokionez, bai etxeko bai kaleko testuinguruan jarriko da arreta. Etxe barneko hizkuntza erabileran sakontzeko VI. Mapa Soziolinguistikoko (Hizkuntza Politika Saila, 2020) datuak baliatuko dira. Gasteiz bosgarren multzoan, hots, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa % 7 baino txikiagoa den eta etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 5 baino txikiagoa den multzoaren baitan sailkatzen da Bilborekin, Bilbo Handiko udalerriekin, Arabako Errioxako eta Mendialdeko udalerriekin batera, besteak beste. Kale-erabilerari dagokionez, ordea, Kale-neurketaren (Soziolinguistika Klusterra, 2022) emaitza zehatzei heldu baino lehen, joera orokor batzuk aipatuko dira. Izan ere, euskaldun gutxiagoko eremuetan euskararen erabilerak, oro har, gora egin du. Are gehiago, joera orokorra izan da hurrengo ere: euskararen erabilera gaztetu egin da eta emakumezkoek gehiago erabiltzen dute adin-talde guztietan, adinekoen artean izan ezik. Are gehiago, ikerlan honen jomuga den Gasteizi erreparaturik, 1993tik goranzko joera izan du euskararen kale-erabilerak eta 2021ean ehunekorik altuena lortu da, hots, % 4,1. Eta beraz, hiriburuen artean, bigarren postuan kokatzen da Gasteiz, Donostiaren atzetik. Aipaturiko datuen argitan, Gasteiz ikerketarako testuinguru interesgarria izan daitekeelakoan hautatu da.

Behin testuinguru soziolinguistikoa aurkeztuta, Familiako Hizkuntza Politikez zein hizkuntza sozializazioaz mintzatu baino lehen, hizkuntzen biziberritze prozesuez zenbait oinarritzko ideia bilduko ditut. Hizkuntza gutxitu baten biziberritzea aipatzen dugunean, aintzat hartu beharra dago norbanakoen erabakia izateaz gain edo horren alde jarduteak onura pertsonalaz harago, familiaren, harreman sare zabalagoen edota komunitatearen onura ere izan dezakeela jomuga (Grenoble, 2021: 9). Hau da, izaera kolektiboa izan dezakeen prozesua dela. Gainera, hizkuntza biziberritze prozesuaren baitan, tartean anitz motibazio dagoen arren, badago zeresana identitateari ematen zaion garrantziaz, “One of the core motivations for revitalization is to claim, or reclaim, identity. This is a consideration that drives many revitalization efforts” (Grenoble, 2021: 11). Horren ildotik, euskararen egoeraz arduratzen direnen artean arrazoi ideologikoak argudio sendo bat izango dira euskara modu aktiboan erabiltzen hasteko (Amorrortu et al., 2017: 15).

Hortaz, hizkuntzen biziberritze prozesua esparru askotan jokatzeko den arren, familiaren esparrua zein haurrak sozializatzen diren testuinguruak garrantzitsuak izan dira. Horren berri ematen du Cirizak (2018: 1) bere lanean nabarmenduaz, euskararen kasuan, biziberritzean murgiltze ereduak arrakasta izan duen arren, familiaren parte-hartzea eta komunitatearen beste talde-sozializazio praktika batzuk funtsezkoak direla oraindik euskal hiztunen belaunaldi berriak suspertzeko.

Jarraian, belaunaldiz belaunaldiko transmisioak hizkuntzen biziberritzean daukan garrantzia teorizatu duten bi autoreren ekarpenak aipatuko ditut, hain zuzen ere, Txepetxenak eta Fishmanenak. Dena den, familiaren garrantziari lotuko gatzazkio euren ekarpenen berri emateko. Batetik, Txepetxen ekarpen garrantzitsuenetako bat, Manterolak eta Berasategik (2011) nabarmendu bezala, *Un futuro para nuestro pasado* (1987) lanean agertzen dena, hau da, hizkuntza baten zazpi funtzio nagusiak gauzatzen diren oinarritzko espazioak irudikatzea izan zen. Horien artean, familia-funtzioa topa daiteke, zeina oso garrantzitsua den Txepetxen ikuspegitik; izan ere, hizkuntza gutxitu bat familian transmititzeak eta erabiltzeak aukera ematen du hizkuntza hori ama-hizkuntza modura gara dezaten hurrek. Honek, aldi berean, bide eman dezake hizkuntza horrek gainerako funtzioak bete ditzan (Manterola eta Berasategi, 2011: 58). Fishmanen kasuan ere, familiaren esparruari garrantzia esleitzen zaio. Hain zuzen ere,

“Fishmanen hizkuntza indarbertzeari buruzko teoriak oinarri bat du: hizkuntza bati eustearen zutabe nagusia belaunaldi arteko transmisioa da” (Zarraga eta beste, 2010: 269).

Aurreko lerroetan aipaturikoaren ildotik, argitu nahi dut erakundeetako askotariko kanpainen bidez familian eragitea aski ohikoa izan dela; alegia, ez dela soilik azken hamarkadetako kontu bat. Izan ere, azken hamarkadetan indartu dena familia ikerketa esparru gisa izan da. Hain zuzen ere, euskararen kasuan, topa daitezke familian hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko jarraipena sustatzeko kanpaina ugari (Hernandez, 2015: 51). Halako kanpainen baitan, hainbat eta hainbat egitasmo antolatzen dira familian eragiteko. Hortaz, horrek dakar, “famiaren eragile profila zehazten dela, ordura arte eskolak izandako protagonismoari elementu/agente berri bat gehituz” (Hernandez, 2015: 51).

Zerk esleitzen dio hainbesteko garrantzia familiaren esparruari? Zergatik familia eragile? Familia gune edo esparruari garrantzia esleitzen zaio bertan finkatzen delako haurren hizkuntz sozializazioa zein, oro har, euren hizkuntz ingurumenaren kudeaketa ere (Hernandez, 2015: 57). Eta horrekin, beste testuinguru batzuetan aplikatzen ari den eta eraginkorra suertatzen ari den termino bat aipatu beharrean gaude, hau da, Familiako Hizkuntza Politika (FHP). FHP familiako kide helduek haurrek etxean hizkuntzak ikasteari eta erabiltzeari buruz hartzen dituzten erabaki esplizitu eta implizituetan zentratzen da (Curd-Christiansen, 2018). Edonola ere, hizkuntza politikak hiru osagai nagusi barne hartzen ditu: a) hizkuntza-praktikak, hau da, hiztunek egiten dituzten hizkuntza erabilerak; b) hizkuntza-sinesmenak edo ideologia, hots, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko uste eta ideologiekin lotutakoa; c) hizkuntza kudeaketa, hau da, hizkuntza praktiketan eragiteko berriazko edozein ahalegin (Spolsky, 2004: 5). Hori horrela izanik ere, egia da bai, familiaren baitan bereizketa hori zenbaitetan ez dela hain erraza izaten. Nandik (2018) argudiatuarekin bat eginez, familia barnean edota etxeko testuinguruan hizkuntza kudeaketa eta praktikaren arteko muga lausoa da; gurasoen euren hizkuntza praktikak edo erabilerak haurren hizkuntza hautuetan eragiteko estrategiak izan daitezkeelako. Alabaina, familia baten hizkuntza-kudeaketa oso baldintzatuta dago etxeko hizkuntza-ingurunearekin, familiako kideek elebitasun sozialari buruz duten ezagutzarekin eta familiaren baldintza sozio-ekonomikoekin, besteak beste (Nandi, 2018).

Jada aipatu denez, beste hurbilketa teoriko bat ere badago hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ikertzeko, hots, hizkuntza sozializazioa. Kasaresen (2017: 29) arabera, “sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da”. Era berean, Ochs eta Schieffelin (2011) esanetan, hizkuntza bitarteko garrantzitsua da haurren ezagutza zein sentsibilitate sozial eta kulturala garatzeko. Are gehiago, nabarmentzen dute jaiotzetik egoera sozialetan murgildurik dauden gizakiak, eduki soziokulturalaz gainezka dauden seinale linguistikoetara egokituko direla.

Hizkuntza sozializazioaren bitartez, hainbat testuinguru sozial esanguratsu ezagutzen, negoziatzen eta ko-erakitzen ikasiko dute, gerora, horri esker, beste hiztun batzuekin harremanetan jarriko dira geroz eta testuinguru gehiagotan eta gizarte-horizonteak zabalduko zaizkie, rol eta estatus berriak bereganatuz joango direlarik (Garrett & Baquedano-López, 2002: 342). Nolanahi ere den, biziki kritikatu izan da maiz sozializazioari esleitu zaion noranzko bakarra. Hain zuzen ere, uste aski zabaldua izan delako helduek haurrak sozializatzen dituztela edota prozesu horren baitan haiek direla eragile aktiboak, eta ez, ordea, kontrara. Horrenbestez, horrek dakar haurrak jasotzaile pasibotzat jotzea. Aitzitik, Kasaresek (2017: 37) defendatzen duenez, “haurrak subjektu aktiboak izan dira hala euskara galtzeko nola berreskuratzeko prozesuetan [...] hau da, etxeko hizkuntza aldarazi dutenak ez dira beti gurasoak izan”.

Ildo honetan, hizkuntza sozializazioaz ari garelarik, ezinbestekoa izango da agentziaren kontzeptua ekartzea. Ahearn-en (1999: 12) arabera, adituen artean, *agentzia* gizakiak jardunean eragiteko duen ahalmenaz mintzatzeko baliatzen da. Halaber, funtsezkoa izango da norbanakoen analisisetan topa daitezkeen aurreiritziak, nahiak eta intenzionalitatea identifikatzea eta horiek aintzat hartzea (Ahern, 1999: 14). Beraz, agentziaren kontzeptu hori familien esparrura ekarrita, ezin pentsa daiteke gurasoen agentzian soilik, haurren agentzia ere kontuan hartu beharko dugu. Eta horrenbestez, seme-alabek gurasoengan izan dezaketen eragin horretan sakondu ahal izateko, hurrengo lerroetan Kasaresek (2014) bildutakoaren berri emango da. Izan ere, etxe askotan euskara haurren bidez sartu da eta horrek maiz eragina du euskara ongi ez zekiten gurasoengan; izan ere, haurrei esker zeozer ikasteko parada izan dutelako edota seme-alabak ikastolan hastearen eraginez, gurasoek euskara klasetara apuntatzea erabaki dutelako. Areago, seme-alabek gurasoen arteko euskarazko ohitura finkatzen ere lagundu izan dute sarri.

FHPn zein hizkuntza sozializazioan ikuspegi eleaniztuna kontuan hartu beharreko aldagai gisa baliatuko dut. Egiazki, FHPn zein hizkuntza sozializazioan inplikaturik dauden hizkuntza guztiak kontuan hartzea ezinbestekoa izango baita. Beraz, euskara eta gaztelaniaz gain, proiektu honetan ingelese ere kontuan hartzea erabaki dut. Izan ere, ikuspegi eleaniztuna hezkuntzari buruzko ikerketan oso emankorra izan da eta oraindik ere bada. Horren adibide ditugu Cenozen lanak: “Basque schools have moved from bilingualism to multilingualism in the last years because of the importance of English, the study of French as a fourth language and the arrival of students who speak other languages” (Cenoz, 2009: 27). Era berean, hizkuntza gutxituen FHPen ikerketetan ere, ikuspegi eleaniztuna eranstean garrantzia nabarmentzen da, “parental language beliefs and choices become even more complex if we take into account the presence of English in the Basque educational system and in society in general” (Garcia-Ruiz et al., prentsan). Dena den, proiektu honetan ikuspegi eleaniztuna euskara, gaztelania eta ingelesera mugatuko da. Alde horretatik, lanaren helburuetatik kanpo geratzen dira hiru hizkuntza horiez gain Gasteizen presente dauden beste hizkuntza asko (ikus, adibidez, Garaio 2022).

3. Ikerketaren muina

3.1. Helburuak

Ikerlan honen helburu nagusia Gasteizko familia euskal hiztunetako seme-alaben hizkuntza sozializazioa aztertzea da, arreta euskarari, gaztelanari eta ingelesean jarrita. Izan ere, azken hamarkadetan aldaketa sakoneko testuinguru batean bizi garenez, bai familiaren nukleoari bai gizarteari dagokionez, garrantzitsua izango da seme-alabak euskaraz hazteko ideologiak soilik ez, baizik eta ikuspegi eleaniztuna gehituta, gaztelania eta ingelese ere kontuan hartzea. Horretarako, Familiako Hizkuntza Politikei (FHP), hau da, gurasoen ideologia, estrategia eta praktika linguistikoei arreta berezia eskainiko diet. Horrekin batera, hizkuntza sozializazio prozesuetan seme-alaben agentzia aztertu nahi dudanez, haurren hizkuntza praktikak ere aztertuko ditut. Nolanahi ere, aipaturiko helburuez gain, ikerlan honen bitartez, segida eman nahi diet azken urteetan eginiko zenbait ikerketari. Alegia, hizkuntza sozializazio prozesuak hobeto ezagutzea ahalbidetu duten Kasares (2014), Ikardo (2017), Garcia-Ruiz et al. (prentsan) autoreek egindako lanen ildoari.

Lehen hurbilketa bat egiteko lagungarriak izango diren ikerketa-tresnak baliatuko ditut, hots, eztabaida-talde bat, bi elkarriketa erdi-gidatu eta bi familiaren behaketa zuzen eta parte-hartzaileak. Edonola ere, aintzat hartu beharra dago lehenengo pausoa baino ez dela, etorkizunean ikerketa zabalago baten parte izango dena.

3.2. Parte-hartzaileak

Gaur egungo Gasteizko testuinguruan kokatuz, bertako 6 guraso euskal hiztun izango dira parte-hartzaileak. Hortaz, sei familia euskal hiztun eta bakoitzeko guraso/parte-hartzaile bana hautatuko da. Are gehiago, guraso horien seme-alabak eskola publiko batean eta D ereduan eskolatutakoak izango dira, zehazki, lehen-hezkuntzakoak (8-10 urte dituztenak). Esan bezala, proposamen hau lehenengo hurbilketa bat baino ez da. Hori dela eta, mugak ezarri behar izan ditut eta bestelako profilak dituzten gurasoak zein beste hainbat aldagai alde batera utzi.

3.3. Metodologia

Ikerlana ikerketa kualitatiboaren esparruan sailkatu beharrekoa da; izan ere, datu-bilketarako tresna gisa hurrengo teknikak baliatuko ditut: eztabaida-talde bat, bi elkarriketa erdi-gidatu eta bi familiaren behaketa zuzen eta parte-hartzaileak. Eta horrenbestez, jarraian, aipaturiko tresnei banan-banan erreparatuko diet.

Batetik, eztabaida-taldean potentzialtasuna ikertzaileak proposatutako gaien inguruan eraikitako eztabaidak datu aberasgarri zein kalitatezkoak biltzeko eskaintzen duten paradan datza (Ortega et al., 2016: 22). Gainera, ikertzaileak proposaturiko gaiak ez ezik, parte-hartzaileen lankidetzaren bitartez aurreikusi gabeko gaiak ere ager litezke. Hori bakarrik ez, Nandik (2018) ere eztabaida-taldean eraginkortasuna defendatzen du gai zehatzagoen inguruan ikuspegi sakonagoa eskain diezaguketelakoan, hala nola familia barruan gizartean nagusi diren politketatik aldentzen diren hizkuntza politikak ezartzeko aukera.

Gasteizen bizi diren eta euren seme-alabak (8-10 urtekoak) eskola publiko batean eta D ereduan eskolatu dituzten sei guraso euskal hiztunek osatutako eztabaida-talde bat aurreikusten dut. Eztabaida-taldearen iraupena parte-hartzaileen interes zein inplikazio mailaren arabera izango da, neurri handi batean behintzat. Hala eta guztiz ere, saioaren irekiera eta itxiera barne, gutxi gorabehera ordubeteko iraupena izatea espero dut. Eztabaida-taldea bideratzeko, gidoi bat baliatuko dut oinarri gisa, zeinetan

ideologiek, estrategiek, praktikekin eta haurren agentziarekin loturiko eztabaidagaiak bilduko diren. Hona hemen gidioan bertan txertatuko diren eztabaidagaien adibide batzuk: 1) Gaur egun, eleaniztasunaren presentzia ukaezina da: zer deritzozue zuen seme-alaben eleaniztasunari? Zer balio ematen diozue hizkuntza bakoitzari? 2) Zailtasunak izan dituzue etxean euskararen erabilera finkatzeko?

3) Parteka zenezakete gainerakoekin erabilera hori sustatzeko gauzatutako estrategien bat? 4) Zer iruditzen zaizue eskolaz kanpo seme-alabek ingelesa ikastea akademiaren batean? Eta zer iruditzen zaizue seme-alabek daukaten euskarazko aisialdi eskaintza?

Bestetik, elkarrizketa erdi-gidatuei dagokienez, eztabaida-taldeen azterketatik abiatuta, horren analisisan garrantzitsutzat jo diren auzi jakin batzuetan sakontzeko erabiliko dira (Ortega et al., 2016: 23). Hau da, Ortega eta besteren (2016: 21) ereduari jarraiki, oinarriko datu iturria eztabaida-taldeek osatuko dute eta elkarrizketa erdi-gidatuek lagungarri gisa jokatu dute. Hortaz, bi elkarrizketa erdi-gidatu gauzatzea aurreikusten dut, zehazki, eztabaida-taldean parte hartu duten bi gurasori. Elkarrizketa pertsonalen iraupena 30 eta 45 minutu artekoa izatea aurreikusten dut. Kasu honetan ere, gidoi bat baliatuko da oinarri gisa, zeinetan ideologiek, estrategiek, praktikekin eta haurren agentziarekin loturiko galderak bilduko diren. Esate baterako: Seme-alabak edukitzeko erabakia hartu zenutenean, zein hizkuntza transmititu nahi zenituzten? Zergatik?; Zer ekimen edo estrategia garatu dituzue zuen seme-alabak etxetik kanpo euskara erabiltzeko espazioak izan ditzan?; Zer hizkuntza erabiltzen dituzte zuen seme-alabek egunerokoan? Horri erantzuteko kontuan hartu eskola, etxeko testuingurua eta familia, besteak beste.

Aipatu direnez gain, Kasaresek (2014) baliaturiko behaketa zuzena eta parte-hartzailea ere erabiliko dut "gizakien bat-bateko mintza-jardunari inolako manipulaziorik gabe, era sistematiko eta kontrolatua begiratzeko" (Kasares, 2014: 113). Hortaz, Kasaresek (2014: 236) bere aldetik, Iruñeko zein Irurritako behaketak, nagusiki, esparru publikoan gauzatu zituen, hau da, nahiz eta eskolaren eremua garrantzitsua izan bertan gertatzen den elkarrekintza zein harreman sarri eta ugariengatik ez zituen behaketak ikasgela barruan egin. Ikerlan honetan ere, eztabaida-taldea eta elkarrizketa erdi-gidatuak egin ostean, behaketa zuzenaren eta parte-hartzailearen teknika etnografikoa erabiliko dut. Etnografiak antropologian du jatorria eta horrek dakar ikerketa etnografikoa frogak ezagutzeko, biltzeko eta ebaluatzeko eredu antropologikoetan oinarritzen dela (McCarty, 2015: 81). Kasu honetan, behaketak ahalbidetu lezake gurasoek eztabaida-taldean zein banakako elkarrizketa erdi-gidatuetan kontatutako esperientziak eta egoerak hobeto ulertzea. Horrez gain, behaketen kopurua eta iraupena finkatzea zail samarra da oraindik; izan ere, aurretik eginiko analisiaren arabera alda liteke. Dena den, bi familiaren behaketa gauzatzea aurreikusten dut bi testuinguru espezifikoetan: parkeko egoerak eta eskolako irteerak. Bi kasuetan, hasiera batean behintzat, lan honetarako interesgarriak diren hainbat interakzio mota gertatzen diren egoerak baitira haurren arteko, gurasoen arteko zein haur eta gurasoen arteko interakzioak behatzeko. Gainera, haurren agentziaren inguruko informazioa ere lor nezake behaketen bitartez.

4. Aurreikusitako ondorioak

Ikerketaren fase honetan atera daitezkeen ondorioei dagokionez, hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializatorako Familiako Hizkuntza Politika jorratu duten aurrekari batzuk ardatz gisa baliatuko ditut zenbait aurreikuspen eraikitzeko; betiere, aurretik aipaturiko hizkuntza politiken hiru osagaietan zentratuz, hau da, ideologiak, praktikak eta estrategiak. Garcia-Ruiz et al.-en (prentsan) lanean, zeina gaztelania nagusi den testuinguru batean kokatzen den, erakutsi da ingelesa L3 gisa modu goiztiarrean jaso duten seme-alaben gurasoen artean positiboki interpretatzen dela euren seme-alaben eleaniztasuna, nahiz eta FHPn inplikaturik dauden hizkuntzei balio aski bestelakoak ezarri. Izan ere, aipaturiko hiru hizkuntzen artean, lotura eta balio emozionalari dagokienez, alde nabarmenak egon daitezke. Hortaz, Garcia-Ruiz et al. (prentsan) laneko emaitzei jarraiki, aurreikus daiteke: euskarari balio identitario sendoa esleituko diotela, ingelesa komunikazio internazionalerako hizkuntza gisa ikusiko dutela eta gaztelaniari ez diotela arreta berezirik eskainiko, euren testuinguru soziolinguistikokoan gaztelaniaren ikaskuntza bermatuta dagoelako bere egoera hegemonikoagatik.

Horrez gain, estrategiei helduz, Escandonen (2016) lanean, gurasoen artean euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak zein euskaraz sozializatzeko duten garrantziaz jabetzeko egitasmoa garatzen da. Parte-hartzaileak Gasteizko testuinguruan 0 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoak dira. Hurrengo estrategien berri jaso daiteke: Gasteizko testuinguru soziolinguistikoko erdaldunak eraginda, aisialdia, sare sozialak eratzea eta, batez ere, euskara ahal den guztietan egitea euskararen erabilera bermatzeko. Hortaz, hipotesia izango da, gurasoen partetik antzeko estrategiek topo egitea, euren errealitatearen parte den gaztelaniaren presentziari aurre egiteko asmoz.

Erabilerari dagokionez, aurreikuspena da gurasoek seme-alabei euskaraz egingo dietela Kasaresen (2014) eta Escandonen (2016) lanen emaitzek erakusten duten legez. Hau da, familiako kideen arteko elkarrekintzetan euskara nagusituko dela aurreikusten den arren, txandakatze handiko hizkuntza-praktikak identifikatzea espero da, hala nola, solaskidearen araberrako txandakatzea, haur eta gurasoengan familiako testuingurutik kanpo etab. Horrekin batera, mundu digitalean gaztelania eta ingelesa euskararen gainetik gailenduko direla espero daiteke.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Aurretik ere aipatu den gisan, ikerketa proposamen hau lehenengo hurbilketa bat baino ez da, hurrengo hilabeteetan helduko baitzaio bertan proposaturiko datu-bilketari. Izan ere, lehendabizi, eztabaida-taldea antolatu eta egingo da; horren ostean, transkribatu, kodetu eta aztertu ahal izateko. Jarraian, eztabaida-taldearen bitartez identifikaturiko zenbait gakoren laguntzaz, bi banakako elkarrizketa erdi-gidatu antolatu eta egingo dira. Gero, horiek ere, transkribatzeko, kodetzeko eta aztertzeke. Azkenik, eztabaida-taldearen zein bi elkarrizketa erdi-gidatuaren analisia egin ondoren, bi familiaren behaketa zuzen eta parte-hartzaileei ekingo zaie, aurretik analisisian agertutakoak baieztatzeko edota ezeztatzeko; alegia, aurreko bi ikerketa-tresnen osagarri gisa.

6. Erreferentziak

- Ahern, L. M. (1999). Agency. *Journal of Linguistic Anthropology*, 9, 12-15.
- Amorrortu, E.; Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 11-49.
- Cenoz, J. (2009). Achievements and challenges in bilingual and multilingual education in the basque country. *Aila Review*, 21(1), 13-30.
- Ciriza, M. (2018). Bringing parents together an innovative approach for parental involvement in an immersion school in the Basque Autonomous Community. *Journal of multilingual and multicultural development*, 40, 50-63.
- Curdt-Christiansen, X. L. (2018). Family Language Policy. In J. Tollefson, & M. Perez-Milans (arg.), *The Oxford handbook of language policy and planning*. 420-441. Oxford University Press.
- Escandon, A. (2016). Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 128-144.
- Eustat (2022). *Euskal AEn bizi diren pertsonen % 62,4k euskararen ezagutzaren bat zuen 2021ean*. [[ESTADÍSTICA DE POBLACIÓN Y VIVIENDAS 2016. Tres de cada cinco personas que residen en la C.A. de Euskadi tienen algún conocimiento de euskera en 2016 \(eustat.eus\)](#)]
- Garaio, B. (2022). *Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai: D ereduko gasteizko bi eskolaren indarguneak identifikatzen*. UPV/EHU.
- Garcia-Ruiz, M.; Manterola, I. eta Ortega, A. (prentsan). Parental Ideologies in Multilingual Family Language Policies in the Basque Autonomous Community. In A. Nandi & A. Zabrodskaia (arg.), *Proposal for a special issue of Sociolinguistic Studies, Family as a language policy regime: Agency, practices and negotiation*. Equinox Publishing.
- Garrett, P.B. & Baquedano-Lopez, P. (2002). Language socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change. *Annual Review of Anthropology*, 31, 339-361.
- Grenoble, A. (2021). Why revitalize?. In J. Olko & J. Sallabank (arg.), *Revitalizing Endangered Languages: a practical guide*. 9-23. Cambridge University Press.
- Goikoetxea, G. (2016). *Euskara irabazteko bidean*. Donostia: Elkar.
- Hernandez, J.M. (2015). Familia hizkuntza-politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94, 47-62.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2020). *VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Ikardo, U. (2017). Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 105, 11-45.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunetaz belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2017). Euskararen transmisioa: berrikuspina hizkuntza-sozializazioaren paradigmatic. In J. Goirigolzarri; X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea*. 27-51. Bilbo: UEU.
- Manterola, I. & Berastegi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: UEU.
- McCarty, T. L. (2015). Ethnography in Language Planning and Policy Research. In F.M. Hult & D.C. Johnson (arg.), *Research Methods in Language Policy and Planning*. 81-93. Wiley-Blackwell.
- Nandi, A. (2018). Parents as stakeholders: Language management in urban Galician homes. *Multilingua: Journal of Cross-Cultural and Interlanguage Communication*, 37(2), 201-223.
- Ochs, E. & Schieffelin, B.B. (2011). The Theory of Language Socialization. In A. Duranti; E. Ochs & B.B. Schieffelin (arg.), *The Handbook of Language Socialization*. 1-11. Blackwell Publishing.
- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.
- Soziolinguistika Klusterra (2022). *Hizkuntzen-erabileraren kale-neurketa*. Euskal Herria, 2021.
- Spolsky, B. (2004). *Language Policy*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Zarraga, A.; Coyos, J.P.; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan honetan egindako ikerketa proposamena, Ibon Manterolaren zuzendaritzapean garatzen ari naizen Master Amaierako Lanean oinarritzen da. Era berean, argitu nahiko nuke lan hau Eusko Jaurlaritzaren Ikasiker Lankidetzak Beka (2022-2023) bati esker ere garatzen ari dela. Ezin eskertu gabe utzi, Ibon Manterolari bere laguntza eta aholkuak. Horrez gain, eskerrik asko ELEBILAB ikerketa-taldeari ere bere partetik jasotako laguntzazatik.